

Albistearen miztoa

Jakina denez, Espainiako Probintzien zatiketa XIX. mendeko asmazio bat dugu. Politikariek ere edukitzen baitituzte noizbehinka amets gaiztoak. Eta amets gaizto horietako bat praktikara eramatean (horren bila ibili ohi dira politikarriak), sortzen da kalapita.*

Aldizkariek esan dituztenetatik jakin dugu hau: Nafarroa eta Logroñoren arteko muga ez dago, nonbait, ongi kokatua.* Ez da ongi ikusten muga marra. Ez naiz sobera* harritzen: Javier de Burgos hark (Probintzia berriak ere asmatu zituenak, esan nahi da) hantxe, Errioxa aldean alegia,* izan baitzuen irudimen jariorik emankorrena (1833). Geroak esan beza asmazio haien ondorena... Geroak edo, muga bilatzeko, eratu den batzordeak.

*
* *

Ikusten denez, mugaz betea dago mundua. Beste mutur batean ere muga bila edo muga kontra omen dabilta, behintzat. Zuek ba dakizue, azken Gerrate Handiaren hondarretan,* Sobiet Batasunak hiruzpalau isla* harrapatu zizkiola Japoni. Izan* ere, bakoitzak ahal duena egin ohi du... Harez gero, Sobiet Batasunak ez du aitortu nahi izan, eskuratutako isla haik* lapurtuak zituenik. 1956 garretetik honakoan Kurile Islan esketan ihardun* du Japoniek, japonesez duten eroapen* luzea inoiz isilerazi gabe. Sobiet Batasunaren bihotza bigundu da orain, eta prest omen dago hitz egiteko. Gure ustez, lapurra nor den, egun argitan aitortzeko prest. Nori berea, hori da legea.

*
* *

Zuek ba dakizue noski, Xabier Zubiri nor den. Euskalduna eta donostiarra da Zubiri, eta filosofi lanetara emana. Haren hitzaldi eta idazlanek halako burrunba bat ekarri ohi dute beren ondotik. Ez dut sekula horren zergatikoa jakin. Hau da, izan ere, gure artean oraindik ere eskolastiko izateko «eskubidea» aitortu zaion bakarra. Dena dela, Zubiri beti izan da oso famatua eta laudorioz betea. Apezgoa utzi zuenean, zenbaitek eduki zuen zalantza-malantzarik; baina harez gero Elizak jasan* izan dituen uholdeek, ez diote haren izen onari batere kalterik egin.

Xabier Zubiri oraingoan Erromara eramanez dute. «Gregorianum» delako Unibertsitate hartara dei egin diote, ikastarotto bat eman dezana. **O tempora, o mores!** Eta, ezker-eskuin, lagun beneragarriak franko izan du: Tabera Araotz Kardinalea, Aita Arrupe, enbaxadariak, eta abar. Egia esan, hogeitabost urte itxaron* gabe, beste hainbeste nahi genuke ikusi, Eliza Katolikoan, Girardi, Díez de Alegria eta antzekoentzat ere. Hori bai litzatekeela liberalismo benetakoa!

JOANES GOIA

beza, **bei**
dezan, **daian**
diote, **deutsoe**
zaio, **jako**
zizkion, **eutsozan**

Axular-en HIZTEGIA

Euskara - Español - Français

Español - Euskara
Français - Euskara

Alta Luis VILLASANTE

JAKIN
BIDE

Zer da Hiztegi hau?

- Euskal idazlerik handienaren gordailua: hitz, esaldi eta idazmoduak jasotzen ditu.
- Euskal hitzaren ondoan espainolezko eta frantsesezko itzulpenak agertzen dira. Eta hitzen ondoren esaldiak datoz.
- Hitz eta esaldiok bi eratara bila daitezke: euskaratik erdarara nahiz erdaratik euskarara.

Zertarako da Hiztegi hau?

- Axularrengandik euskararik jatorrena ikasteko, bera baita euskal prosaren sortzaile bikaina.
- Batez ere, hitzekin batean euskal joskera jatorrak jasotzeko.
- Idazle klasikoengandik hasirik, euskararen batasuna egin dezagun.

Norentzat da Hiztegi hau?

- Lehendabizi, irakasle guztientzat beharrezkoa da. Eta berdin Unibertsitateko irakasleentzat eta aldizkarietako idazleentzat.
- Ikastola, Ikastetxe eta Goi Ikastetxeetan premiazkoa da, kontsulta liburu bezala.
- Euskaltzale orori oso baliozko gertatuko zaio Hiztegi hau bere irakurraldietan.

Salneurriak

650 pezeta liburudendetan.
% 10 pezeta merkeago ANAITASUNAREN abonatuentzat.

Eskabideak

JAKIN, Aránzazu, Oñate, Guip. Tel. 781172.
JAKIN, Cuartel, 2, Tolosa, Guip. Tel. 651106.

Izena

Kalea Tel.

Herria Probintzia